



bbk



2017


NARRAZIOAK ETA OLERKIAK



II

NARRAZIOAK ETA OLERKIAK

2017



R. M^a AZKUE

SARIA







NARRAZIOAK ETA OLERKIAK





NARRAZIOAK ETA OLERKIAK

R. M^a Azkue saria

2017

BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA
BILBO
2018



EUSKALTZAINDIA

bbk²

Testuen hizkuntza-orrasketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen
Behatokia (HIZBEA)

© Idazle bakoitzak bere testuarena
eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak argitalpen
honena

ISBN: 978-84-948489-2-6

L.G.: BI-1459-2018



Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta
Euskaltzaindiak deitutako 2017ko *R. M^a Azkue*
sarietan irabazle izandako narrazioak eta olerkiak
batzen dira liburuki honetan.

* * *

Deialdian partaidetza-maila bi bereizi ziren
adinaren arabera:

A Maila: 2004, 2005, 2006 eta 2007an jaiotakoak.

B Maila: 2000, 2001, 2002 eta 2003an jaiotakoak.

Generoari dagokionez, batetik, *narrazio* lanak eta,
bestetik, *olerkiak* eskatu ziren maila bakoitzerako.

* * *

Lehiaketa eta liburu honekin, Bilbao Bizkaia
Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak euskal eskola
-umeak literaturgintzara bultzatzeaz gainera, euren
artean irakurketa indartzea dute helburu nagusi.





AURKEZPENA

13. or.

«MAITASUN AHAZTEZINA»

Maialen Leiza Irazusta, 12 urte

Oiartzun

Narrazioa. A Maila. Lehenengo saria

17. or.

«TXIRO NAIZ ETA TXIKIA NAIZ»

Uxue Etxebeste Usabiaga, 12 urte

Oiartzun

Narrazioa. A Maila. Bigarren saria

21. or.

«GORA GURE TRENA!»

Uritz Aranbarri Lazkano, 12 urte

Azpeitia

Narrazioa. A Maila. Hirugarren saria

27. or.

«LEHEN ETA ORAIN»

Lur Lopez, 13 urte

Usurbil

Olerkia. A Maila. Lehenengo saria

29. or.

«ZU»

Goizalde Eizagirre Goikoetxea, 13 urte

Gernika-Lumo

Olerkia. A Maila. Bigarren saria



31. or.

«INORK EZ NAU EZAGUTZEN»

Ainhize Bengoa Gezuraga, 13 urte

Gernika-Lumo

Olerkia. A Maila. Hirugarren saria

33. or.

«KALE BERRIA»

Anne Arrizabalaga Ruiz, 15 urte

Oiartzun

Narrazioa. B Maila. Lehenengo saria

39. or.

«EZ»

Maddi Aiestaran Iparragirre, 16 urte

Beasain

Narrazioa. B Maila. Bigarren saria

47. or.

«KALEIDOSKOPIOAK»

Maialen Garaigordobil Urkiola, 17 urte

Otxandio

Narrazioa. B Maila. Hirugarren saria

57. or.

«NON ZAUDE, BABILONIA?»

Peru Amorrortu Barrenetxea, 17 urte

Vitoria/Gasteiz

Olerkia. B Maila. Lehenengo saria





61. or.
«AUSARTUKO NAIZ»
Maddi Aiestaran Iparragirre, 16 urte
Beasain
Olerkia. B Maila. Bigarren saria

63. or.
«EZ DAKIT»
Ainara Gómez Pacheco, 15 urte
Vitoria/Gasteiz
Olerkia. B Maila. Hirugarren saria





MAITASUN AHAZTEZINA

Maialen Leiza Irazusta

Oiartzun

Oraindik gogoratzen dut piano zahar haren soinua. Soinu goxo eta polit horrekin batera dantzatzen hasten nintzen ni, sei urteko neskatxa bat, nekez, dantzatzen zekiena, ile marroixka eta begi beltzekin; zerikusirik ez zuena ondoan zuen gizon zahar eta ile zuri horrekin. Pianoa jotzen zuena, nire lagunik onena, nire aitona.

Arratsaldero-arratsaldero korrika ateratzen nintzen ikastolatik, arnasestuka. Etxera iristerakoan, nire amak egiten zituen gaileten usainak inguratzen ninduen eta lehenengo gauza egiten nuena (eskailerak launaka igo eta gero) amari muxu potolo bat ematea zen. Meriendatzeko, beti bezala, bi gaileta eta esne baso handi bero-bero bat. Gailetak ziztu batean jan eta esne basoa di-da batean edaten nuen.

–Kontuz, Leire! Erre egingo zara!– esaten zidan beti amak.

Korrika joaten nintzen nire aitonaren gelara. Gela polit, txukun eta handia zuen. Eta izkina batean piano hura.

–Aitona, aitona, gaur zein kanta?

–Zuk nahi duzuna, Leire– esaten zuen irribarre batekin.

Egia, beti nik nahi nuena jotzen zuen.

–Orduan, betikoa!– esaten nion nik.

Jotzen hasten zen lehenengo segundotik nire gauzak ahazten nituen eta musikak eta nik bat egiten genuen. Pauso bat ezkerrera, beste bat eskuinera, buelta erdia eta salto... Gustura aritzen nintzen eta dantzaria izango nintzela egiten nuen amets. Bukatzerako, bi ordu pasatzen ziren.

–Eoo, aizue, egingo al didazue kasu? Afaltzera! Bosgarren aldiz!

Aitonak eta nik batak besteari begiratu eta barre egiten genuen (baina ez oso altu).

Eta horrelakoak ziren egun guztiak, igandeak izan ezik. Igandeak ziren niretzako egunik onenak. Goizean goiz esnatu eta opil gozo-gozo batzuk eroatera joaten ginen nahiz eta urruti egon. Bidean ahateak ikusten genituen eta aitona eta ni ogia botatzera geratzen ginen pixka batean. Aitonarekin beti pasatzen nuen ondo, gainera, asko mimatzen ninduen... Opilak hartu eta etxera joaten ginen gosaltzera. Horrela igarotzen ziren asteak joan-etorrian.

Lehen aldiz hura gertatu zen arte.

Ni, beti bezala, korrika itzuli nintzen etxera ikastolatik bueltan. Asteartea zen. Etxera iritsi eta aitonarengana joan nintzen. Bera hor zegoen bere besaulki gustukoenean eserita. Zerbait berezia ikusten zitzaion begietan. Zerbait zuen, begirada galdua zuen.

–Kaixo, aitona, gaur zein kanta?– galdetu nion ohiko moduan.

–Zer? Zein kanta? Nor zara zu?– esan zuen aitonak.

–Ni naiz, Leire, zure biloba!

– Leire? Zer biloba?! Nik ez dut bilobarik!

Momentu horretan bular aldean mina sentitu nuen, min handia. Orduan konturatu nintzen, aitona nirekin ahaztu zela, joan egin zela. Malko potolo bat erori zitzaidan nire masailetik.

–Aitona! Ni naiz, Leire, Leire, zure biloba!– esan nuen malko artean–.

Korrika atera nintzen etxetik eta nire toki gustukoenera joan nintzen, aitonaarekin igandero joaten nintzen tokira, ahateak ikustera. Han egon nintzen hiru orduz, eta etxera bueltan joan nintzen. Etxera sartu eta egongelan bertan medikua ikusi nuen nire amarekin hitz egiten. Nire amarengana joan nintzen:

–Amatxo, amatxo, zer gertatzen zaio aitonari?

–Aitonak Alzheimerra du, maitea, eta beste etxe batera joan beharko du bizitzera bere adineko pertsonekin.

–Ez! Ez! Eta ez! Ez dut nahi etxetik joatea!

Joan egin nintzen nire gelara, negarrez.

Denbora batera aitona geriatriko batera joan zen.

Aitonak hamahiru urte eman zituen geriatrikoan eta maiz joaten nintzaion bisitan, berekin

igarotako momentuak gogoratzeko eta gogorarazteko. Denborak aurrera egin ahala, bere gaixotasuna zenbat eta gehiago areagotu, orduan eta gutxiago oroitzen zen nirekin. Baina ez nuen etsitzen, ahal nuen guztietan joaten nintzen bera ikustera: gure abestia jarri eta dantzatu egiten nion. Hori baitzen nire ametsa eta horretan bilakatu zen nire lanbidea, izan ere, balleteko dantzaria nintzen.

Han eta hemen birak egiten hasi nintzen eta azken birako ekitaldia nire herrian eskaini behar nuen. Amari aitona ni ikustera eramateko eskatu nion.

Ekitaldiaren eguna iritsi zen. Agertokira ateratzean nire aitona ikusi nuen. Oroitzapen asko etorri zitzaizkidan gogora. Musika hasi eta dantzatzen hasi nintzen. Musikak eta nik bat egin genuen. Nire aitonak arretaz begiratzen ninduen. Bat-batean pauso bat ezkerrera, bestea eskuinera eta salto...

–Nire biloba da, Leire! Nire biloba!

Erabat hunkituta garrasika hasi zen eta zutik jarri zen, ni bere iloba nintzela oihukatuz. Bera entzun nuenean, gelditu eta negarrez hasi nintzen. Agertokitik jaitsi eta korrika hurbildu nintzen besarkada handi-handi bat ematera.

Orain, berriro, ez daki nor naizen, baina momentu hori ez dut sekula ahaztuko. Eta ziur nago, bere bihotzean maitasun hori betirako sentituko duela.

Zuretzako da, aitona.



TXIRO NAIZ ETA TXIKIA NAIZ

Uxue Etxebeste Usabiaga

Oiartzun

Kolore pila bat zituen parke zoragarri batean, Txiro izeneko txori bat bizi zen. Txiro pareta-txori ausart, azkar eta txiki-txiki bat zen, oso-oso-oso txikia zen, ezkur baten adinakoa. Batzuetan txantxangorriek ezkur batekin nahasten zuten. Hori pasatzen zenean, beste txori guztiek barre egiten zioten, eta bera beldurtu egiten zen jan egingo zutela uste zuelako.

Egun batean Txiro poz-pozik zihoan bere lagunekin, parkeko lurrerantz, janari bila, eta ohartu ziren beraien janari guztia desagertu zela, zizare guztiak desagertu ziren, parkeko janari guztia desagertu zen, zakarrontzikoak ere bai; eta harrituta geratu ziren. Txori-buruarengana zihoazela, katu gaizto beltz batek Txirori egunerokoa lapurtu zion, gosea zeukalako, eta edozer jango zuelako, gosez akabatzen zeuden, parkeko animalia guztiak. Txiro negarrez hasi zen, gutxienez ordubetez aritu zen negarrez, ezin zion negar egiteari utzi, hortxe zituen eta bere abenturen istorio guztiak.

Gure txoritxoa eta bere lagunak, azkenean, txori-buruarengana iritsi ziren eta gertatutako guztia kontatu zioten. Txori-burua sinestu ezinik, geratu zen, eta esan zuen harriturik:

–Ez da posible! Nola liteke? Ez dago zizarerik parke osoan?

Txori batzuk istorioak asmatzen hasi ziren, gezurrezko istorioak. Batzuek esaten zuten, enara batzuek jan zituztela zizare handi eta txiki guztiak, beste batzuek esaten zuten maldizio bat zeukala parkeak, eta joan egin behar zutela gosez ez hiltzeko, bestela jan egingo zituztelako.

Horrelako istorio arraro eta bereziak asmatzen hasi ziren. Txiro harriturik geratu zen besteak istorio oso arraroak asmatzen hasi zirelako, batzuetan amesgaiztoak ere edukitzen zituen.

–Isildu! Gaizki ari naiz pasatzen, lehenengo katuak egunerokoa lapurtu dit, gero janari guztia desagertu da parketik, eta gainera, horrelako istorioak kontatzen dituzue? Hau txantxa bat da, ezta? Ez dut ezer jakin nahi inori buruz!–esan zuen Txirok, oso haserre.

Haserre sartu zen bere gelara, atea gogor itxiz. Txiroren aitak atea jo zuen eta esan zuen:

–Txiro, mesedez, atera gelatik, bilerara joan behar duzu eta ez bazara joaten, ez duzu zure egunerokoa berreskuratuko.

–Ongi da, joango naiz, baina egunerokoaren-gatik bakarrik, bestela ez, entzun al didazu? Egunerokoarengatik bakarrik.

Txiro bestela ere joango zen, baina oso haserre zegoen.

Bileran zeudenean, txori-buruak esan zuen txoririk indartsuenak elkartzeko, janaria nora joan zen jakin eta bilatzeko. Txiro amorratu egin zen hori entzun zuenean:

–Baina, zergatik izan behar dute indartsuenak edo gihartsuenak? Indartsuak izateagatik, ez dira ausartak eta azkarak, beldurtiak izan daitezke. Ni txikia izango naiz, baina azkarra naiz, eta pixka bat ausarta, eta lan hori egiteko balio dut! –esan zuen Txirok.

–Txiro, arrazoi pixka bat badaukazu, baina ez dizut utziko joaten, arriskutsua da, oso txikia zara, eta katu batek harrapatzen bazaitu, jan egingo zaitu, eta ez dugu nahi horrelakorik gertatzerik. –esan zuen txori-buruak.

–Orduan, kosk egingo diot katuari, beldurturik joango da eta horrela bakean utziko gaitu. –esan zuen Txirok.

Hori esaten bukatu zuenean, denak barrezka hasi ziren.

–Baina zer ari zara esaten, kosk egigo diozula? Kar kar kar kar! –esan zuen txori batek.

Gure txori txikiak ere lagundu nahi zuen, eta horregatik, besteen artean joan zen eta ez ziren ohartu. Zuhaitz erraldoietatik parkera zihoazela, katua azaldu zen, Txiroren egunerokoa hortzetatik zintzilik zuela, eta Txiro haserre bizian jarri zen. Katuak bere egunerokoa zeukala ikusi zuenean, korrika bizian joan zen katuarengana, kosk egin

eta egunerokoa berreskuratu zuen. Beste txoriek, ezin sinistuz, barkamena eskatu zioten Txirori, baina Txirok esan zuen horrelako gauzak edozeini pasatzen ahal zitzaizkiola.

Txiro parkean barrena hegan zebilela, besteekin batera, lurrean gauza fin luzetxo batzuk ikusi zituen, poliki-poliki mugitzen. Abiadura bizian joan zen, zer zen ikustera.

–Hemen daude! Hemen daude! Aurkitu ditut zizareak!

Txiro hunkitu egin zen, eta zorabiatzen hasi zen. Besteak ziztu bizian joan eta zizareak aurkitu zituela konturatu ziren. Denak poz-pozik jarri ziren. Zuhaitz nagusira joan ziren eta Txirori berriz ere, barkamena eskatu zioten. Txiro poz-pozik joan zen etxera, lepotik zintzilik zuela, zuhaitz nagusian emandako bere egurrezko domina berria.

–Ez zenukete ipuin hau entzungo nire egunerokoa berreskuratu izan ez banu. Nire egunerokoa –esan zien Txiro zaharrak hunkiturik, bere bilobei, berak bizitutako istorioa kontatu ondoren bere egunerokotik.

GORA GURE TRENA!

Uritz Aranbarri Lazkano

Azpeitia

Bada Nafarroan, iparraldean, Irati oihanaren bihotzean eta Abodiko mendilerroari begira, Otsagabia izeneko herri eder eta ponpoxo bat. Han Zatoia eta Anduñá errekek Zaraitzu ibaia erditzen dute, mutil koskor bat jaiotzen den antzera. Herri erdi-erdian, Anduñá erreka zeharkatzeko zubia dago. Eta hurbil eliza txiki bat.

Etxeak harrizko etxeak dira, batzuk txikiak, beste batzuk handiagoak... Baina denak dotoreak. Herriaren izena armarritik datorkio, izan ere otso bat ageri da ahoan bildots bat duela. Neguan batez ere, sekulako hotza egiten du, ifar-gorri egunetan. Elurra ere lagun dute sarri otsagabiarrek.

Beno, baina noan harira.

Kontatzen denez, duela ez urte asko bazen bost laguneko kuadrilla txiki eta jator bat. Kuadrilla txiki hura, hiru neska eta bi mutilek osatzen zuten. Tikitatik ezagutzen zuten elkar, eta lagunak baino anai-arrebak gehiago ziruditen.

Irene oso neska bihurria eta dibertigarria zen. Jone, berriz, sugandila bezain urduria eta hitzon-

tzia. Jaione zen hirugarrena, alaia eta jatorra. Bihurrikeriak egitea gustuko zuen, baina batez ere idaztea gustatzen zitzaion, beti bere sagar koloreko egunerokoa eskuan zuela. Mutiletan zaharrena Iker zen magia eta eskulan zalea, eta bere lagunak lagunak handiena. Eta azkenik, taldeko bihurriena, Peru. Beti bere txakurraz lagunduta, eta txantxazale amorratua.

Bost lagun haiek amets bat zuten, tren bat erosi eta trenbidea egitea Otsagabitik Iruñeraino. Eta, ametsa egia bihurtzeko txerri itsulapiko bat erosi zuten denek artean. Eta dirua aurrezten hasi ziren. Denek asteko pagaren zati txiki bat botatzen zuten itsulapikora.

Jendeak barre egiten zien:

–Benetan ari zarete? Ja, ja... Zuen ametsa egia bilakatzeko, denok hilda gaude!

Baina, bazen herrian aitona zahar bat; barre ez, animatu eta dirua itsulapikora botatzen ziena.

–Ametsak horrela betetzen dira gazteak, saiatuz!! Je, je, je!! Segi horrela gazteak, tori txanpon bat!

Horrela izaten zen astero...

Baina, negu hartan, sekulako elurtea egin eta etxe baten teilatua behera erori zen.

Etxe hura Patxi izeneko gizon xuhur eta zikoitz batena zen, umeei barre egiten zien haietakoa. Etxerik gabe, eta dirurik ez zuenez, neska-mutil kuadrilla harengana jo zuen errukiz.

Aste hartan Peru bihurriari tokatzen zitzaion itsulapikoa zaintzea. Beraz, Patxi bere etxera joan

zen. Peruk, harrituta, ezetz esan zion, atea danbatego batez muturren aurrean itxiz.

Hurrengo egunean, lagun talde osoa Jaioneren etxean bildu zen Patxiri buruz hitz egiteko.

Irenek honela zioen:

–Hainbeste urtetan guri burla egin eta gero, orain diru eske etorri? Joiok adarra...

–Bai, baina niri pena handia ematen dit... eta... ez dakit... –esaten zuen Ikerrek zalantzan.

Jone Ireneren alde agertu zen. Peruk aldiz, Ikerren alde. Eta Jaionek ez zekien zeinen alde egin. Xehetasun guztiak beti bere koaderno apainduan bilduz, jakina.

Azkenean, Jaionek hartu zuen hitza, eta esan zuen:

–Aizue, Patxi gizon gaiztoa, petrala, eta xuhurra izango da, baina inori ez litzaioke gustatuko pasatu zaiona gertatzea, ezta?

Horrela, hurrengo goizean, Patxirekin hitz egiteko elkartzea erabaki zuten. Patxiren bertsioa entzun nahi zuten. Hamarretan, plazan. Lagunak Erletxo izeneko dendara sartu ziren gozokiak erostera.

–Nora zoazte hainbeste gozokirekin? Zinemara edo?– galdetu zien Maite izeneko emakume batek.

–Bai, halako zerbait edo... –erantzun zion marmarka Irenek, iseka egin izan zien haietakoa baitzen

–Zer gertatu da bada? –Maitek harrituta.

–Oso istorio luzea da Maite, eta presaka gabilta – eta, kanpai hots txiki batekin batera, atea itxi zen neska-mutilen atzetik.

Maitek ez zuen ezer ulertzen, ez eta ulertu beharrik ere!

Iritsi ziren plazara, eta han zegoen Patxi. Nola ez, beti bezala marmarka. Hura gizon petrala!

Patxik konpondu zuen etxea, eta hil arte ez zion lagun kuadrillari dirurik itzuli. Baina Patxik bazuen iloba bat, urte askoan elkarren artean harremanik ez bazuten ere. Osaba Patxiren hiletetan, Ane etxe eta diru istorioaz jabetu zen. Ane txundituta geratu zen istorioa entzun zuenean.

Sentitzen dut nire osaba Patxik zuekin horrela jokatu izana. Ez zen gizon gaiztoa, baina bakardadean mikaztu zen. Gogoan dut ni txikia nintzela... Baina gero harremana galdu genuen, eta orain arte...

Hiru aste pasatu dira, eta karta bana iritsi zaie lagunei:

Ane Zabaltza, Nafarroako lehendakaria

Kaixo lagunok, Nafarroako lehendakaritzatik idazten dizuet. Egia esan behar badizuet, zuen istorioak erabat hunkitu nau bai ni eta nire Gobernu osoa.

Hain esku zabalak izan eta gero, bueltakoa jaso ez zenutenez, gauza bat erabaki dugu. Hemendik bi urtera Iruñetik Otsagabiraino trenbidea egiteko genuen proiektua urte batez aurreratzea erabaki dugu, horrela zuen ametsa ahal den azkarren bete ahal izateko.

Esker onez, Nafarroako Gobernua.

Lagun kuadrilla pozez zoratzen zegoen, ezin zioten pozari eutsi.

Halaxe trenbidea egin zuten. Eta inaugurazio egunean Irene, Jone, Iker, Peru, Jaione eta Ane izan ziren zinta moztu zutenak. Gora gure tren!



LEHEN ETA ORAIN

Lur Lopez

Usurbil

Lehen
oinutsik ibiltzen zinen
hondar beroaren gainean
eta orain
Nike markako zapata
urdinak dituzu oinetan.

Lehen
sabela janari eske edukitzen zenuen
eta orain
janari soberakinak
marroi koloreko ontzira botatzen dituzu.

Lehen
lastozko etxe batean bizi zinen,
logela bakarra zenuten senide denentzat
eta orain
adreiluzko paretak dituzu,
zuretzat bakarrik,
anaiak ez entzuteko.

Lehen
oinez ibili beharra zeneukan
ura ekartzeko
eta orain
etxeko arraskatik
har dezakezu ura.

Baina
orain
ez dizut
ezpainetan irribarrerik ikusten,
ez zaitut
suaren inguruan
dantzatzen ikusten,
ez duzu abesten,
ez zaitut
lehen bezain
aske ikusten.

Zergatik egoten
zara gauero
Nigeriako
argazkiei begira?



ZU
Goizalde Eizagirre Goikoetxea
Gernika-Lumo

Zure begiak nire goizeko argia,
zure irria nire ilargi
ez dut argitasun falta
geratu daizula argi.
Itxaropen ziztrina
nire zaurien mina
zu izan ezina.
Nirekin bazina.
Zure besoetan lo egin
hainbat zauri (e)ta hainbat min
desagertuko ziren zu bezala
nire bizitzatik.
Zu zara nire gauetako lo egin ezina
nire malkoen zergaitia
nire bihotzeko zauria.





INORK EZ NAU EZAGUTZEN

Ainhize Bengoa Gezuraga

Gernika-Lumo

Inork ez nau ezagutzen.
Inork ez du benetan bereizten noiz nagoen ondo
edo txarto,
noiz den nire irribarrea benetakoa eta noiz faltsua.
Inork ez daki zenbat aldiz esnatzen naizen gauean
dardarka eta izerditan blai,
norbaitek ur izoztua botata bezala.
Inork ez ditu ezagutzen nire orbanen istorioak edo
nire begi zuloen zergatiak,
inork ez ditu ikusten nire betaurreko atzean
dauden begi negartsuak.
Inork ez ditu aditzen nire ukabil more edo gorriak,
hainbat aldiz neure burua zigortzeko erabili
ditudanak.
Inork ez ditu nabaritzen nire esku muturretako
orbanak,
batzuk zaharrak besteak berriagoak, batzuk
sakonak eta besteak azalekoak,
baina denak helburu berdinarekin eginak,
nik benetan zerbait sentitzeko, gero damutzen
banintzen ere.

Inor ez bada nire itxuraz ohartzen,
gutxiago sumatzen dute nire barnealdean dagoen
kaosa.

Nire barrualdea buruz behera dago, hankaz gora,
nahas-mahas hutsa da, nahaste-borraste itzela.

Inork ez daki zein den nire abesti gogokoena,
zein entzuten dudan triste nagoenean, edo pozik
edo haserre nagoenean.

Inork ez daki zein liburu irakurtzen dudan negar
egiteko,
edo zein filma ikusten dudan barre egiteko.

Inork ez daki noiz den nire urtebetetzea, eta
horregatik ez dut inoiz oparirik.

Gauza horien guztien baturak bakardea sortzen
du,
eta ez nago bakarrik,

jendea harat-honat ikusten dut nire inguruan eta
horrek oso txarto sentiarazten nau,

inor ez baita gelditzen ni nola nagoen galdetzeko,
ez eta agurtzeko ere.

Denaren baturak ezegonkortasun bat sortzen du
nire barnean,
eta ezegonkortasun horretatik kaosa sortzen da.

KALE BERRIA

Anne Arrizabalaga Ruiz

Oiartzun

Faborez, a ze lanak bidaltzen dizkiguten batzuetan! Nire familia deskribatzea, hori bai txorakeria, Lehen Hezkuntzako ikasleak izango bagina, gutxienez... Baina ez da kasua. Pilarrek, euskarako irakasleak, gehienok gaizki idazten omen dugula eta astero-astero gai bati buruz orri erdi bat bete beharko dugula besterik ez du errepikatzen. Eta nik nola egingo dut hori? Nola deskribatuko dut nire familia, ez badut hitz horren esanahia ere ulertzen?

Etxera iritsitakoan ama lisatzen topatu dut, hain gorrotagarria dudan alkandora urdin iluna esku artean duelarik. Masailean musu bat eman eta irribarre goxo bat eskaini dit, baina nire gelako atea itxi orduko, barren-barrenetik atera zait lehenengo malkoa. Aspaldi agortu zitzaizkidala uste nuen. Nire negarraren eragilea *familia* hitza izan da, nire etxeko egoera gogorarazi baitit.

Berehala lehortu dut negar-tanta etxeko atea irekitzen hasi denean. Nire aita da, etxeko gizona. Nazkagarria. Nire ama iraintzen, beldurtzen,



jotzen duen gizakia. Zerk itsutuko zuen ama, bere garaian, horrelako batez maitemintzeko? Maitasunak berak, suposatzen dut.

Egia esan, nire aita lehen ez zen horrelakoa. Lehen ama eta ni primeran zaintzen gintuen, osaba kartzelatua izan zen arte. Hura preso denetik, aldiz, dena beltz bilakatu da. Amak eta biok aitak bezalaxe maite dugu osaba, eta min ematen digu horrela egoteak, txoria kaiolan egongo bailitzan. Baina aitak hori ez du ulertzen. Berak anaiarengatik sufritzen duena guri ordainarazten digu. Gorroto dut.

–Arratsalde on, Jaione –gelako atea ireki du, baina ez diot ezer erantzun. Duela hilabete ez diodala ezer esaten, begiradekin dena azaltzen baitiot.

Arratsaldean lan pare bat egin eta lotaratu egin naiz. Musika jartzen dut belarrietan gauetako liskarrak eta jipoiak tapatu nahian.

Hurrengo egunean, Janirerekin arratsaldea pasatu ondoren, etxerako bidean kale berri batetik pasatu naiz. Izan ere, etxebizitza berriak egin dituzte eta beste bide batetik joan beharra daukat. Etxebizitzak, etxebizitzak eta etxebizitzak; eraikinak eta eraikinak. Gris bilakatzen ari da mundu berdea, baina, tira, hori beste kontu bat da.

Gauza zera da: gitarra-hotsa aditu dudala. Gitarra elektriko bat entzun dut kalean, baina ez edonolako soinua, jotzen duenak benetan modu harrigarrian sentitzen du instrumentua. Nola azaldu hitzez musika horrek sentiarazi didana?



Beraz, oraingo hau ikusi dut momenturik egokiena nire familia deskribatzeko, eta ditzosozko lan hori egiteko. Familia perfektu bat asmatzeko eta errealitatea gorderik uzteko surrealismo hutsean murgildurik.

Kalearen txoko batean eseri eta hitzak idazten jarri naiz, ezkerretik eskuinerantz, musikarekin batera. Gitarra jotzen duenak ulertuko banindu bezala sentitzen dut. Izugarria da sentsazioa. Eta bukatzeko, nire deskribapen faltsuko azken hitza idatzi dut: errespetua.

Orduantxe bukatu du gitarra jotzaileak kanta. Sinestezina.

Etxean sartu naizenean, ama leihotik begira aurkitu dut. Kaleko euriari begira dago. Zerutik hasi eta bidaia luzea, eta aldi berean, motza egiten duen tanta bakoitzari begira dago. Hipnotizatuta.

–Ama, ezin dugu horrela jarraitu.

–Bolada bat besterik ez da, alaba. Ahal den guztietan joango gara osaba ikustera, eta aitari berehalaxe pasatuko zaio haserrealdia.

–Baina-baina, nola esan dezakezu hori? Haserrealdia? Jo egiten zaitu, ama, jo! Nola esan dezakezu hori haserrealdi bat bakarrik dela? Egunero negarrez zaude, eta dagoeneko nekatu naiz, gorroto dut aita!

Ama hitzik gabe gelditu da. Begietara begira nigana hurbildu eta besarkatu egin nau. Une batez, ongi sentitu naiz. Aspalditik nenbilen kontaktu horren beharrean, maitasunaren beharrean.

Asteazkena, gaur igeriketa dut arratsaldean. Hau ere okerrera joan da. Lehen oso ona nintzen, ia txapelketa gehienak irabazten nituen, eta primerako harremana nuen entrenatzailearekin. Orain, ordea, agurtu eta igerilari gisara hobetzeko aholkuak besterik ez dizkit ematen, edozein entrenatzailek bezala.

08:17, atzoko ordu bera, kale berbera. Oraindik ez dut gitarra soinurik entzun, baina segur aski, berehalaxe hasiko da musikaria sokak bibrazten.

Hamabost minutu daramatzat dagoeneko itxaroten, eta oraindik ez dut doinu txikienik ere entzun, ez behatzak berotzeko akorderik ere. Badaezpada, gehiago geldituko naiz zain. 44 minutu pasa dira; 45; banoa.

A ze nostalgia atzokoa, ea gaur zortea edukitzen dudan. Lau, hiru, bi, bat eta eman dut lehenengo pausoa kale berrian. Begiak itxi, eta bai, sentitzen dut melodia. Gaurkoan bai. Beraz, begiak ireki ditut eta gora begira jarri naiz. Musika nondik etorriko ote den galdetzen diot neure buruari. Eraikin berrietan ez da ezer arraroa ikusten, baina eraikin zahar batean jarri dut arreta. Hau ez da oso altua ingurukoekin alderatuta, nahiko utzita dagoela ematen du, eta katu beltz batek azaleratzen duen misterio bera sentiarazten dizu. Leiho guztietako kristalak nahiko hautsiak daude, batenak izan ezik, eta bertatik argi xume batek ihes egiten du. Argi daukat, handik dator musika berezi hau.

Herenegungo txoko berean eseri eta, beste egitekorik gabe, musika entzuten jarri naiz.

–Agur, ama –goizeroko musua eman eta etxeko atea itxi dut.

Ikastolan orduak azkar pasatu zaizkit, beti bezala. Orain ikastola gogoko dut. Etxea ez den beste leku guztiak ditut gogoko. Baina gaurkoan ere iritsi da eguneko azken arloa. Arratsaldea liburutegian pasatu ostean, ohiko lekura joan naiz, ohiko orduan.

Oraingo honetan beste pauso bat eman nahi dut, musikaria nor ote den jakin. Gehiegi miresten dut ezezagun bat izateko. Ondorioz, eraikin zaharrera hurbildu eta bertako ate handiaren aurrean gelditu naiz. Irekia dagoenez, barrura sartu eta eskailera batzuk ikusi ditut. Lehenengo aldiz beldurra sentitu dut; hala eta guztiz ere, oinez jarraitu dut gela egokia aurkitu arte. Hamaika galdera etorri zaizkit bat-batean burura, nahiz eta jakin, ate horren beste aldean ezin duela pertsona gaiztorik egon.

Musikak jarraitzen du eta oraindik atearen beste aldean nago. Ez naiz ausartzen. Zer esango diot? “Aupa, zure gitarra jotzeko modua maite dut eta jakin-mina nuen”, besterik ez. Ez da ohiko gauza bat.

Halako baten, musika gelditu eta isiltasuna nagusitu da. Ezustekoarekin, gehiegi ikaratu eta eskailerak korrika jaisten hasi naiz. “Tuntuna, tuntuna!” errepikatu diot neure buruari.

Erlojuari begiratu eta etxera joateko ordua dela ikusi dut.

–Non bili zara, maitea?

–Berandutu egin zait ama, barkatu –benetan sentitzen nuen.

Ez diot aitari buruz galderarik ere egin, ohean egongo dela pentsatzen dut, beti bezala.

Denbora aurrera joan ahala, Janireri kontatu diot kale berriko nire gitarra jotzailearen istorio guztia. Berak ez du ulertzen musika horrengatik sentitzen dudan guztia, are gutxiago oraindik ezezaguna dudala musikaria:

–Eta, ez al duzu jakin nahi nor den musika horren sortzailea? Beharbada, gainera, mutil gazte bat da

–Ez dut uste, Janire. Baina egia esan, badut jakin-min pixka bat.

–Lasai, Jaione, egunen batean ezagutuko du eta; seguru nago!

Janire agurtu eta etxerako bidean noala, kale berriatik pasatzerakoan, eraikin zaharraren parean jarri naiz. Badakit musikaria ordu honetan ez dagoela bertan. Besterik gabe gelditu naiz eraikinari begira. Gustuko dut tokia. Baina, bat-batean norbait eskailerak jaisten nabaritu dut. Baztertu egin naiz ikus ez nazan, eta atea ireki du. Ezin dut sinetsi, nire aita da.



EZ

Maddi Aiestaran Iparragirre *Beasain*

Bai! Nik probokatu nuen! Armairuan neukan arroparik limurtzaileenarekin joatea erabaki nuen. Bularretakoak erakusten zituen kamiseta tirantedun estu hura hautatu nuen, eskote itzelarekin, horren gogoko dudan bular-erretenak hainbat begirada erakarriko zituen esperantzan. Nire ipurdia irudikatzen laguntzen zuten miniaturazko praka haiek jantzi nituen, olio irristakor hartan igurtzitako udako zango beltzaranak ere erakusteko. Propio. Sexy egoteko. Begiradak erakartzeko. Desira sortzeko. Eta horregatik gertatu zitzaidan gertatu zitzaidana. Nik bultzatu nuen. Ez nuen besterik merezi! Nirea izan zen errua!

Ez. Errua ez zen zurea izan. Sexya izan nahi duzu. Eta zer? Kamiseta tirantedun estu baten azpian gordeta dauden bular ederrak intsinuatzen dituen eskotea erakutsi nahi duzu. Eta zer? Lerdea dariela utzi nahi dituzu, zure zango luze bezain gihartsuei begira. Eta zer? Desira zaitzaten nahi duzu. Eta zer? Horrek ez du justifikatzen animalia basati haiek zurekin egin zutena. Haragia erakusteak ez die eskubiderik ematen eskua lotsagabeki luzatzeko,

egunetan pilatutako sexu-grina zurekin bidegabeki asetzeko, beren desira zapuztuak zurekin ankerki gauzatzeko, erraietaraino barneratuta daukaten matxotasunaren karietara zurekin nahi dutena egiteko.

Errudun sentiarazi zaituzte, ordea. Emakume perfektuaren eredu faltsu eta zurrunetik aldentzen zarelako. Ausartegia zarelako. Askea izan nahi duzulako. Zeure buruaren eta gorputzaren jabe izan nahi duzulako. Deseroso sentiarazten dituzulako. Beldurra ematen diezulako.

Baina zuk ez duzu errurik.

Bai! Gustura nenbilen maitakeriatan! Eroso sentitzen nintzen neronek hasitako maite-jolas zoro hartan. Gustuko nuen mutila, gustuko nuen belarrira xuxurlatzen zidana, haren lurrina, begietan nabarmentzen nion desira... Eta muxu eman nion, sutsuki, lotsarik gabe, zerbait gehiago nahi nuen pentsatu ere egin gabe. Imaginatu ere egin gabe muxu hark ezinbestean pauso bat —edo bi, edo hiru— haratagoko lurraldeak iradoki zitzakeela. Une hartan bertan animalia basati haien harrapakin bihurtu nintzela ohartu gabe. Taberna batean egin genuen topo; irribarre egin genion elkarri; dantzan hasi ginen, bata bestearengandik geroz eta gertuago, geroz eta lotuago; ozta-ozta entzun zuten nire belarriek une zehatz hartan erakartzen ninduen mutil haren izena, baina muxu eman nion. Ezagutu berritan. Azkarregi. Berak horrenbeste desiratzen zuen hura gauzatzeko baimena eman nion, nahi bezain urrutira joateko baimena eman nion. Nahi gabe. Baina nik ireki nuen bidea! Nik bultzatu nuen! Nirea izan zen errua!

Ez. Errua ez zen zurea izan. Zuk ez zenuen baimenik eman, zu ez zinen azkarregi joan, eta ez zinen inorekin zorretan gelditu. Zuk muxu bat baino ez zenion eman, espontaneoki, nahi zenuelako, berarekin gustura zeundelako. Berak hartu zuen lizentzia zurekin nahi zuena egiteko, zure gorputz babesgabearen gaineko agintea indarrez bereganatzeko, krudelki, bere lagun ankerrekin konpartitzeraino. Beraiena ez zen espontaneo izan: maltzurkeriaz jokatu zuten, engainatu egin zintuzten, behartu egin zintuzten, iraindu egin zintuzten, animaliarik basatien pare jokatu zuten zurekin, inolako gupidarik gabe.

Errudun sentiarazi zaituzte, ordea. Errudun sentiarazi zaituzte, eskemak apurtu dituzulako, askatasuna maite duzulako, naturaltasunez jokatzeko duzulako, gizartearen atzerakoikeria higuingarria agerian uzten duzun emakumea zarelako.

Baina zuk ez duzu errurik.

Bai! Asko edan nuen, inoiz baino gehiago, eta neska batek, onartua izango bada, ez du asko edan behar. Ezinbestekoa du itxuran ibiltzea, manierak zaintzea: ez du altuegi hitz egin behar, ez du algara zororik egin behar, ez du lotsagabeki dantzatu behar, ez ditu hankak zabaldu behar... Baina nik kontrolik gabe edan nuen gau hartan, herabetasuna galtzeraino edan ere, eta atzera bueltarik gabeko zurrumbilo batean sartu nintzen. Urte guztian zehar nire baitan metatutako presioa eta estresa alkohol-dosi ikaragarri batekin kitatu nahi izan nituen, eta ordu batzuetan zehar txikitatik buruan

iltzatuta izan ditudan barrera, hesi eta muga guztiak gainditu nituen, emakume otzanaren eredu zurrunik aldenduz. Eta beraien errespetua galdu nuen. Neuk bihurtu nuen neure burua animalia basati haien harrapakin. Ondo merezia nuen! Nirea izan zen errua!

Ez. Errua ez zen zurea izan. Zuk ez zenuen halakorik merezi. Asko edan zenuen; erreparorik gabe dantzatu zenuen; frenorik gabe egin zenuen algara, eta gustuko zenuen mutila seduzitzen aritu zinen. Naturaltasunez. Zeu izan zinen, hamazortzi urteko neska bat, alkohola kontsumitu behar duen ala ez erabakitzeko aski sen duena. Egun hartan, edatea erabaki zenuen, zure adineko beste edozein neskak erabakiko lukeen bezala, baina ez zenuen ezer txarrik egin, ez zenion bide eman zurekin egin zuten basakeriari.

Errudun sentiarazi zaituzte, ordea. Errudun sentiarazi zaituzte, emakume moderno eta askea zarelako. Gizonak ardatz dituen mundu inposatu bati men egin gabe bizitzeko adorea erakutsi duzulako.

Baina zuk ez duzu errurik.

Bai! Ez nien aurre egin! Isilik gelditu nintzen! Ezkaratz batera sartu ninduten nahasmendu handi baten. Segada gaiztoa jarri zidaten nire babesgabetasuna baliatuz, eta blokeatuta geratu nintzen. Ez nuen garrasi egin, beldur izugarri batek zeharkatu zuelako nire gorputza goitik behera. Begiak itxi eta une nazkagarri hura lehenbailehen amaitzea besterik ez nuen nahi izan. Gaizki jokatu nuen! Kontra egin behar nien! Garrasi egin behar nuen! Orain, adostutako sexu-harremana

izan zela diote, gustura egon nintzela, ez nuela gihar bakar bat ere mugitu euren desira zapuzteko. Eta sinetsi egingo diete. Ez naute aintzat hartuko. Neure burua defendatu behar nuen! Nirea izan zen errua!

Ez. Errua ez zen zurea izan. Bost basapiztia zenituen inguruan, zure gorputz babesgabeari so, letaginak agerian, grinatsu. Begiak itxi eta munstro haien kirats sarkorra irenstea erabaki zenuen, goragaleari eutsiz. Begiak itxi zenituen, kalean zakur arriskutsu batekin gurutzatzean ixten ditugunean bezala. Izututa baitzeunden. Izututa, noraino irits zitezkeen ez zenekielako. Izututa, buruan iltzatuta zeneukalako gainean zenituen haiek bezalako beste piztia mozorrotu batek behinola egin zuena zu bezalako neska babesgabe batekin, eta buruan iltzatuta zeneukalako, halaber, piztia madarikatu hark mozorrotutako piztia izaten jarraitzen duela, eragindako kalteari ez ikusiarena eginez. Eta izotz-bloke isil bilakatu zinen. Izututa baitzeunden.

Errudun sentiarazi zaituzte, ordea. Errudun sentiarazi zaituzte, hezur-haragizko orok erreakzionatuko zukeen moduan erreakzionatu zenuelako. Gezurretako ipuin sinesgaitz bat irentsarazi digutelako, eta dizutelako. Orogen gainetik daudela uste dutelako.

Baina zuk ez duzu errurik.

Bai! Ezer gertatu ez balitz bezala jarraitu nuen! Hamazortzi urteko neska baten bizimodu normala antzeztu nahi izan nuen, barrua txiki-txiki eginda izanda ere. Sexuari buruzko ideia irekiak ditudala lau

haizetara zabaltzen zuten mezuak igo nituen sare sozialetara, errukirik sor ez nezan, biktima gajoaren irudia eman ez nezan, ez bainuen jendearen begirada errukiorrik nahi. Eta nire errugabetasunaz zalantza egitea besterik ez nuen lortu. Arrazoa eman nien! Ez naiz neska eredugarria! Merezita nuen! Nirea izan zen errua!

Ez. Errua ez zen zurea izan. Normaltasun-plantak egin zenituen, ahal bezain lasterren ohikotasunera itzultzeko. Errukirik eragin nahi ez zenuelako. Hamazortzi urteko neska normal bat izan nahi zenuelako berriz. Aitak eta amak zure oinaze biziaren zantzurik ez ikustea nahi zenuelako, zauria uste baino lehenago orbainduko zitzazulako itxaropena piztu zedin eurengan. Bizimodu normala egiten saiatu zinen, barnean zeneraman gurutzea estaliz eta mozorrotuz. Pasarte makabro hura ahanzturak irents zezan nahi zenuelako. Eta nahi duzulako.

Errudun sentiarazi zaituzte, ordea. Errudun sentiarazi zaituzte, zure pauso, mugimendu eta pentsamendu bakoitza epaitu dutelako. Egoera zaurgarri honek zугan sortzen duen hauskortasuna baliatu dutelako gezur nazkagarri bat inposatzeko. Zerorrek sinesteraino.

Baina zuk ez duzu errurik. Ez.

Horregatik, nik lagunduko dizut hauskortasun horretatik ihes egiten, poliki-poliki, benetako normaltasunerantz, mozorrorik gabeko normaltasunerantz, sendotasunerantz. Nigan konfiantza izatea nahi dut. Nire egiari irmotasunez hel

diezaiozun nahi dut, zure egia delako. Nire egia ere badelako. Ez zarelako erruduna. Ez naizelako erruduna.

Eta iritsiko da egun bat, gaur oraindik irensteko gai ez zaren bi letra xume bezain egiazko horiek betiko barneratuko dituzuna. Bikotekideari naturaltasunez kontatuko diozuna munstro haiek zer egin zizuten; edo alabari esango diozuna gizarte koadrikulatu honek ezartzen dituen aurreiritziei muzin egiteko, errudun-sentimendurik izan gabe; edo Zuzenbide Fakultateko gela bateko pulpitua baliatuko duzuna hamazortzi urteko gazteei begiak zabalarazteko eta kritikoak izan daitezen irakasteko, edo errurik ez duela sinesteko premian dagoen paziente ikarati bat aurrean izango duzuna. Gaur nik zauzkadan bezala. Eta paziente ikarati horri aplikatuko diozun terapia urteetan zehar zeure buruarentzat darabilzun terapia berbera izango da. Urteetan zehar zanpatua izan den egia gailentzen den arte. Halako batean, “EZ” oihukatzen duzun arte. Errudunak beraiek direla benetan sinesten duzun arte.

Orduan hartuko dute zinez aintzat gure ezezkoa.



KALEIDOSKOPIOAK

Maialen Garaigordobil Urkiola

Otxandio

Askotan, zer esan ez dakigunean ere, hitz egiten dugu. Hitz egiten dugu entzunak izateko edo gogoa dugulako soilik, entzunak ez garen arren. Era berean, inork irakurriko ez gaituen zalantzari entzungor eginez, idatzi egiten dugu batzuetan; momentu hartan gogoratu nahi izan genuena ez dezagun ahortzi. Ziurtasunez ez dakit norbaitek irakurriko nauen noizbait ni, zalantzarik gabe dakit ordea, nik zure erosketa zerrenda ere irakurriko nukeela, hozkailuan idatzi duzun ohar laburra edo gurutzegrama batean sartu duzun azken hitza.

Trenetik jaitsi zinen, presaka. Bidaia osoan zehar zu aztertzeke aukera izan nuen, begirada sakon bat, begi-zuloekin, orraztu gabe, bizpahiru eguneko bizarra, beroki zabal bat zeneraman eta erakargarria zinen, oso. Melankolia puntu batekin begirutzen zenuen leihotik, agian tren okerra hartu duzulakoan, duda. Kezkak albo batera utzi eta amore eman duenaren usaina zenuen, bakardadearen zaporea. Bizigabeko ahotsak

geltokira iritsi ginela jakinarazi zuenean zure atzetik irten nintzen eta paper bat erortzen zitzaizula ikusi nuen. Koaderno orri batean, boligrafo beltzez idatziriko suizidio gutun bat. Irakurri eta “ez nau inork maite, bakarrik nago” zioen. Bihotza gelditu zitzaidan, hasieran, bizkortu gero eta zure bila hasi nintzen, jendetza artean, urduritzen ninduten bihotz-taupaden erritmoan korrika eginez zuregana zuzendu, eskua sorbaldan jarri eta arnasestuka esan nizun “nik maiteko zaitut”.

Agian, ez zen horrela izan eta bikote arrunt baten antzera ezagutu ginen, alkohola zainetan Bilboko jaietan. Edo, autobusa noiz helduko den galdetzean elkar begiratu, maitemindu eta autobusera igo beharrean alboko tabernan kafe bat hartzea erabaki genuen. Beharbada, betidanik ikaskideak izan gara eta ez dugu gogoratzen nola ezagutu genuen elkar. Edonola, ziur dakit maite izan zaitudala, zoratzeraino.

Gure maitasun istorioa kostaldean kokatuko dut, eta gogoratuko dut pasiadan joaten ginela, aquariumeraino. Bertako bankuren baten eseri eta zigarro bat pizten zenuen, hankak gurutzatu eta interesantearena eginez. Batzuetan, luze hitz egiten genuen, honetaz eta hartaz, zergatiez eta damutzeaz galdetzen nizun. Isilik ere geratzen ginen eta begietara begiratzen nizun, itsasoa zenuen begirada eta hondoratzeko aukera nuen, zoritxarrez, itotzekoa ere. Uste dut itotzen bukatu dudala. Etxera bidean eskutik heltzen ninduzun,

itzultzeko bide luzeena aukeratzen genuen, presa gabe bizi ginela disfrutatzeko. Orain ere etxera bide beretik itzultzen naiz. Lo geratzen ginen telebistari begira, gehienetan telebista itzalia egoten zen arren eta lo hartu baino lehen muxu ematen zenidan, nik esna agoantatzen nuen, muxuaren zain.

Goizetan leiho ondoan esertzen zinen, zigarro bat erretzera eta zure koaderno gorrian idazten zenuen, batzuetan letra fin eta elegantez, zirriborroka bestetan, zure buruarekin haserretzen zinenean. Noizbait galdetu nizun zer idazten zenuen eta “gauzak” erantzun zenidan. Sarritan etxetik joaten zinen eta luze ematen zenuen kanpoan. Behin galdetu nizun non ibiltzen zinen eta “kalean” erantzun zenidan.

Noizbait galdetu izan nion nire buruari zerk biratzen zituen jendearen begiradak gugana, zerk sortzen zituen txutxu-mutxuak bizilagunetan. Baina, ez nion erantzunik aurkitu eta ez zitzaidan inporta. Entzun izan nuen ere elkar ezagutu baino lehen drogadiktoa zinela eta nik ez omen nekiela ezer. Egia zen, nik ez nekien, ez nizun inoiz galdetu eta jakin-minik ere ez nuen. Hala ere, gizakia kurioa da izatez eta behin kontu handiz mesanotxeko lehen tiraderan gordetzen zenuen koaderno gorria irakurtzera ausartu nintzen.

Urriko asteazken gau bat izango zen hura. Zorionez, ez dut detaile guztiekin gogoratzen, ezin izango nukeelako horrekin bizi. Gure atari aurrean aparkatu zuen anbulantzia baten sirena hotsak

auzokoak esnatu zituen, goizeko laurak izango ziren Asun susto batez esnatu eta ohetik leihora salto batez hurbildu zenean. Eraikineko mesanotxeetako argiak banan-banan piztu ziren erizainek eskaileretatik behera eramaten zintuzten bitartean, ia konorte gabe zinela. Beroki zabal bat jantzi nuen pijamaren gainetik, agian trenean zeraman bera, eta ospitalerantz abiatu ginen. Hurrengo orduetan gertaturikoa ahazturik dut guztiz, asmatu nezakeen, egia gertaera hipotetikoen artean nahastuz, baina ez zen ezagutu ginenekoa bezain polita izango.

Luze egin zitzaizkidan ospitaleko egunak, oso. Luze egin zitzaidan ohera zu gabe sartu nintzen lehen gaua eta ez nuen lorik egin, beharbada, zure lotaratzeko muxuaren zain geratu nintzelako. Eskaileratan bizilagunekin elkartzen nintzenean zugatik galdetzen ninduten. Nik pentsatzen nuen nabariak zirela nire begi zuloak, orraztu gabeko ileak eta esateko beharrik ez zegoela. Behin erantzuteari utzi nion, behintzat benetan axola ez zitzaieni.

Negar egiten nuen, asko, disimulu gabe eta behar nuen guztietan. Begiak makilatzen nituen eta negar egiten nuen ispilu aurrean, errimela korritzen zitzaidan bitartean, norbaiti –neure buruari bederen– erakusteko nire mina zein handia zen.

Oihu egiteko beharra izan nuen behin eta kalera irten nintzen, etxeko zapatiletan. Zurriolako paseora joan nintzen, barandari gogoz heldu eta

garrasika hasi, negar batean bukatzeko, barnean neraman samina, bakardadea, beldurra eta egonezina txilioka baino baretuko ez balira bezala. Jendeak harridura eta izu aurpegia jartzen zuen nire oihu bakoitzean eta halako batean emakume bat hurbildu zitzaidan lasaitzeko eskatuz eta laguntzarik behar nuen ihardetsiz. Ez nion erantzun eta garrasika jarraitu nuen, eztarria urratu zitzaidan arte. Uste dut udaltzainek eraman nindutela etxera.

Gogoan dut zaparrada osteko azken euri tantek esnatu eta etxeko isiltasun hark amorratu ninduela. Leiho ondora zuzendu nuen begirada, oraindik ere makarrak kendu gabe eta zure azken zigarroaren mutxikinak hor jarraitzen zuela ikusi nuen, itzali gabe, kea zeriola. Pentsatzen dut kontatu dudala jada zure oharrak irakurri nituela inoiz, egun hartan lehen aldiz. Leiho ondoan eseri nintzen zuk egingo zenukeen bezala eta azkenengoz idatzi zenuenaren datari erreparatu nion, urriak 11. Aste batzuk iragan ziren ordutik, gehiegi. Eternitate oso bat eman nuen irakurtzen eta labur egin zitzaidan. Nahiz eta koaderno hori irakurri dudan aldien kontua galdu, ez naiz nekatzen. Sarritan, irakurtzen jarri eta ezin dut gelditu, eta, hala ere, ez nuke jakingo hitzez deskribatzen bertan esaten duzuna.

Errealitateak huts egin zigun eta ihes egitea erabaki zenuen. Ihesi joan zinen leihotik bera datozen tanten erritmoan, hortentsia batzuen artean galdu zinen, irakiten duen kafe baten kearen erritmoko dantzaz, itsas

ertzean sartzen den eguzki izpien argiei jarraika. Askatasuna bihurtu zenuen muga eta hegoak moztu zenituen teilatutik salto egin aurretik. Ispilu aurrean biluztu eta dantza egin zenuen, ahitu arte, zure burua zenbat maite duzun sentitzeko. Kaleidoskopio batekin hasi zinen mundua ikusten, itsusiegia delako bestela.

Zure liburuen artean miatzen hasi nintzen, zuk idatziriko edozer irakurtzeak sortzen zidan endorfinaren bila. Aseezin sentitu nintzen, paper eta liburu guzti horien artean dantzan, ezin gelditu. Kaos guzti horren erdian, ateko txirrinak errealitatera itzuli ninduen eta korridorean zehar, botata zeuden orri guztiak nire oin hutsekin zapaltzen nituen bitartean, ateraino zuzendu nintzen. Atea ireki nuen eta honen atzean zu zinen. Zu zinen inoiz baino ederrago, zu zinen zure osotasunean, zu zinen niri begira, nire ate atzean, denbora horretan guztian hor egon bazina bezala, nik atea irekiko zain.

Uste dut etxeko nahasteak eta zure testuak irakurri izanak pixka bat haserretu zintuela eta horregatik ez zenuela gehiago idatzi, nik behintzat ez dut idatzi berririk aurkitu zure gauzen artean. Gogoan dut ere agertu eta hurrengo egunak ohean eman genituela, elkar askatu ezinik, batak bestea zaintzen eta hizketan. Berba asko egin genuen, ahoak lehortu, ordulariak aspertu eta lo geratu arte, eta ez zen nahikoa izan. Irratikaseta-ekin eraikinaren teilatura igo ginen horietako gau baten eta eguzkia irten arte egin genuen dantza. Inoiz baino alaiago zinen, inoiz baino

biziago. Ospakizunik ez zegoen arren, xanpaina botila bat ireki zenuen eta zeruari begira mozkortu ginen. Sinetsiko nuke ilargiak ere gure inbidia sentitu zuela gau hartan.

–Asun! Asun! Entzun al zenitun atzo oihuak ta dantzak?

–Entzungo ez nitun ba Bego, neska hau ez do ondo, ez do ondo –Asunek elkarrizketa luzerako zihoala ikusirik Eroskiko poltsak askatu eta kontu handiz oinen parean utzi zituen.

–Hasieratik kusten zitzaion begirada arraroa, baina beno, ez do inor itxuragatik juzgatu beharrik ta...

–Itxura bakarrik balitz! Ezetz, ezetz, askotan entzuut nik bakarrik hizketan eh, edo egunon esan ta erantzunik re ez!

–Niri atzo beldurra ta dena eman zian, bera bakarrik teilatura igo eta hor eon da gau osoa, mozkortzen ta zarataka, entzerratzeko moduan do –esan zuen Begok, ogi barra besapean estutzen zuelarik.

–Egunen baten eraikinari su mango dio agian ta guztiok bertan erreko gaitu.

–Auskalo! Eta Asun, ta zer sanber nizun... Jakin al tzu zuk ezer ospitalera eraman zuten bere nobio horretaz?

Ospitaletik irtetean, erretzen hasi zinen berriro eta tabako gabe geratu zinen baten etxe azpiko tabernara jaitsi ginen eroatera. Bide batez, kafe huts bat hartu genuen bertan. Leporaino kargatua zetorren saltzaile bat hurbildu zitzaigun eta zuk kaleidoskopio bat erosi zenion. Nik harengatik galdetu nizun eta, penagatik, eskaini zizun lehen jostailua hartu zeniola erantzun zenidan.

Amak deitu zidan egunekoa dut zure azken oroitzapena. Etxeko telefonoak esnatu gintuen. Sukaldera abiatu nintzen pausoak oker emanez, oraindik erdi lo nintzela eta amaren ahotsak harritu ninduen “*Maitia, zer moduz?*” denbora zen hitz egiten ez genuela. Elkarriketa bat hasteko egiten den ohiko galdera zela suposatu nuen eta garrantzirik eman gabe erantzun nion Baina amak nire sentimendu eta aldarteaz galdetzen jarraitu zuen, interes handia jarritz. Aulki bat hartu eta eseri egin nintzen, amak bakarrizketaren aria hartu eta askatzera ez zihoala sumatu nuenean “*badakit oso gogorra dela, baina jakingo duzu aurrera egiten, gainditu... ez, gainditu ez delako inoiz gainditzen...*”. Kezkatzen hasi eta urduritu egin nintzen, mahai gainean jarri ohi nuen lorontzia konturatu gabe lurrera botaz. Sukaldera sartu zinen orduan, begiak igurtziz makarrak kendu zenituen eta hautsitako lorontziaren kristalak batzeari ekin zenion. Amak elkarriketara itzuli ninduen orduan:

–Anne, hor zaude?

–Bai ama, barkatu, konturatu gabe lorontzi bat hautsi zait.

–Ene, ene... Maitia nahi al dituzu egun batzuk gure etxean igaro? On egingo dizu konpainiak eta oroitzapenez betea egongo den etxe horretatik irteteak ere.

–Baina ama, zer diozu? Ez dakit zertaz ari zaren ere, ni ondo nago, oso ondo.

Ama orduan segundo batzuez isilik geratu zen, hurrengo zetorrena esateko era egokia bilatzen zuen bitartean.

–Anne, ez al dakizu ezer? Esan ziguten ospitalean ez zenuela telefonorik hartzen baina suposatzen genuen jakingo zenuela. Maitia, Kepa bart gauean hil da.

Momentu hartan, barrutik apurtu nintzen (ninduzun). Aurrean zintudan, zuzen niri begira eta ikusi ahal izan nuen nola egin zizun alde begietako dirdirak, astiro-astiro, itzali arte. Biratu eta pauso geldoak emanaz, aterantz zuzendu zinen, agur ere esan gabe, “pum” atea itxi zen.

Mugitu gabe eman nituen minutuak, orduak, egunak, leku berean, ezer egin, pentsatu edo sentitu gabe, zain, ez dakidan arren zeri. Ama etorri zen bila, amak deitu zion psikologoari, amak egin zuen dena, baina amak ez dit inoiz galdetu zer gertatzen zaidan. Nik, ordea gauza asko ditut galdetzeko, badakidan arren, erantzunik ez dagoela. Hutsune handi bat sentitzen dut, inoiz beteko ez dena. Esango nuke lorategi bat hasi zaidala barnean, sasiz betea.

Psikologoak zuri idaztea “ariketa interesgarria” dela esan dit.



NON ZAUDE, BABILONIA?

Peru Amorrortu Barrenetxea

Vitoria/Gasteiz

Garai bateko ororen amets
 Orain hauts eta aurri baino ez
 Non zaudete, Babiloniako zeru ertzok!
 Non dira hiri builatsu horiek,
 Zerua urratu nahi luketen
 Ziguratak, antzinaroko ortzenbor?
 Desertua besterik ez, hits, lehor.
 Non zaudete, sumertar, akadiar,
 Asiriar zaluok, beldurraren
 Mezulari, herrien azpiratzaile
 Hainbesteren arbaso 'ta sortzaile?
 Zein duna berok estaltzen du
 zuen hilobia?
 Non, ze koba ospeletan gordetzen
 dira zuen sekretuak?
 Sargon, Asurnarsipal, Nabukodonosor,
 Lehen, bigarren, hirugarren, azken,
 Zenbakiak zer du inporta, ez
 Badaude hemen?
 Bata bestearen atzetik joan dira
 Besteari segika igaro dira

Historiaren galbahe finetik.
 Bihotza estutzen dit.
 Apenas dago haien aztarrenik.
 Nehork ez du gordetzen haien oroitzapenik.
 Izan ziren amak, alabak, senarrak, emazteak,
 Seme, amona, aitona, suhi, anai, lagun, bikoteak
 Apaiz, sazerdotisa, soldadu, ezagun, maitaleak,
 Merkatarri, musikari, desertuko bide luzeen ibiltari
 Gaur egun harean dautza zuen bizitzak,
 Aieruak, desirak, esperantza printzak,
 Elkarri gau epeletan xuxurlaturiko hitzak.
 Edo, apika, ibai handiak eraman ditu,
 Ur handi amaigabeetan galtzeko, Jonasekin
 Batera baleen estomago urtsuak betetzeko
 Arrainak ez beste inor tarteko,
 Sekula haien berririk ez izateko.
 Joanak dira, Asiria, zure lurretik
 Zure alabak. Inon ez dira ageri
 Semeak. Tigrisaren emari emeak bustitzen
 Ditu zure endaren azken kumeak, ahul
 Bakarti, haien lurean arrotz, basamortu erdian
 Hotz, nondik datozen ezjakin, nora doazen nork
 jakin.
 Arraza kanpotarrekoak dira zure
 Lurra zapaltzen duten jendeak
 Funtsean berdinak, zure askazikoen hain
 Ezberdinak, asmakari soilek bereiziak.
 Urrun daude, arpilaturik, Istarren atea.
 Fanatikoek suntsitu dute zure
 Leinu emankorraren hazia,
 Izerdi eta odolaren poderioz hazia,

Aspaldi, ordea, zimeltzen hasia
Haren habietako txoriek utzia.
Ilun da zure jainkoen ortzia.
Zu aspaldi iraungi zinen jadanik,
Oro, guztiak, joanik. Harriak
Idazkunak, eternitatearen promes, soilik
Dira garai bateko lorien
Lekuko mutu mezuz bete.
Horiek ere ahaztuko ditugun arte.
Zuri suertatu zitzaizun patu krudela
Guretzat ere gordeta ote?
Jakin nahiko nuke, hitz beste
Ahanzturen putzuan murgilduko
Naiz ni ere?
Galdetzen dizut, Babilonia. Ene
Negarrek busti dute zure desertuko harea.
Baina ez da aldatu palmondoen bisaia bareta
Haizeak soilik ihardetsi die lanturuei.
Isilik diraute oroitzapenez zipriztindutako
harriek.





AUSARTUKO NAIZ
Maddi Aiestaran Iparragirre
Beasain

Zintzoa izateko esaten zidaten.
Esana betetzeko.
Isilik egoteko.
Ez oihukatzeko.

Printze urdinarekin amesteko esaten zidaten.
Soinekoa janzteko.
Sokasaltoan ibiltzeko.
Panpinarekin jolasteko.

Besteak bezalakoa izateko esaten zidaten.
Eta esaten didate.

Neska izateko esaten didate.
Panpoxa izateko.
Ispilua maitatzeko.
Ezpainak margotzeko.

Sentsuala izateko esaten didate.
Takoiekin ibiltzeko.
Eskotea erakusteko.
Zangoak gurutzatzeko.

Besteak bezalakoa izateko esaten didate.
Eta esango didate.

Baina Urtezahar-gau batez,
ausartuko naiz,
eta antzoki erdira
aterako naiz.
Soinekorik gabe.
Takoirik gabe.
Eskoterik gabe.
Ezpain gorri hanpaturik gabe.
Eta oiuhu egingo dut.
Lore bakanduen pare,
nortasunik gabeko begiraden jabe
egin nazaten
ausartuko naiz.
Takoi, eskote eta ezpain gorrien
antzezlanaren erdian
dantzatzen
ausartuko naiz.
Soinekorik gabe.
Takoirik gabe.
Eskoterik gabe.
Ezpain gorri hanpaturik gabe.
Ni neu.
Gidoirik gabe.
Eta distira egingo dut.
Besteak bezalakoa ez naizelako.

EZ DAKIT

Ainara Gómez Pacheco

Vitoria/Gasteiz

Ez zintudan ezagutu, ez.
Ez dakit nolakoa zinen, ez.
Ez dakit nola hitz egiten zenuen, ez.
Ez dut ezagutzen zure ahotsa,
zure izaera,
zure begirada, ez.
Ez dakit zure antzekoa naizen ala ez.
Ez dakit zeintzuk ziren zure ohiturak.
Ez dakit euskara maite zenuen ala ez.
Ez dakit zer gertatu zitzaizun.
Ez dakit zein zaren.
Galduta nago mundu ziztrin honetan.
Badakit oso garrantzitsua izan zinela,
maite izan zenuela,
semeak izan zenituela,
matematikari hutsa zinela.
Badakit beti zoriontsu zeundela,
dena kontra zegoenean,
dena txarto zihoanean,
irribarre zabal batekin aurrera jo zenuela.

Badakit horren kontra egin zenuela azkenengo
momentura arte,
oso indartsua izan zinela,
barne-indarra zenuela.
Badakit zure agurra oso gogorra izan zela beraientzat,
familiarrentzat,
lagunentzat.
Baina zuk hori uste ez baduzu ere...
Askok hitz egin didate zutaz.
Hainbeste denbora pasa ondoren, zutaz oroitzen
dira.
Lagun ona zinela esan didate,
bihotz-onekoa.
Ez, ez zintudan ezagutu,
mundu honen parte ez nintzelako oraindik.
Baina ziur egon.
Ohore handia izango zatekeen zu ezagutu izana.
Hemen
asko maite zaitugu,
eta fisikoki ez egon arren,
beti gure bihotzean izango zara.
Ez, ez dakit nolakoa izan zinen.
Baina
asko maite zaitut,
aittite.







